

Elkartasun ekimen bat da, hondakinak ez alferrik galtzeko

EROSKI-K 20.000 KILO JANARI EMAN DIZKIO DOHAINZAN BBK KARPIN FAUNARI

- EROSKI eta Enkarterrietako Mankomunitateak lankidetzaren hitzarmen bat dute 2019tik
- EROSKIren Zallako hipermerkatuan giza kontsumorako baldintzak betetzen ez dituzten elikagaiengatik egina dute; izan ere, baldintzak betetzen dituzten erakundeek erabil ditzakete animaliak elikatzeko
- EROSKI 4.600 tona janari hondatzea galarazi zuen 2020an
- Ekimen honekin, ahal den janari gutxiena hondatzea da xedea

Zalla, 2021eko ekainaren 24a.- [EROSKI](#) 20.000 kilo janari baino gehiago eman dizkio dohaintzan [BBK Karpin Faunari](#), 2019tik hona Enkarterriko Mankomunitatearekin egina duen lankidetzaren hitzarmen bati esker. Hitzarmen horren bitartez, EROSKI konpromisoa hartzen du gizakiak jateko on ez diren elikagaiak dohaintzan emateko, hala nola arraina, haragia, fruta, berdura, ogia eta opilak. Produktuak egunero jasotzen dituzte Karrantzako fauna zentroko langileek EROSKIren Zallako hipermerkatuan.

EROSKI konpromisoa hartua du elikagaiak ez alferrik galtzeko, eta horren harira egina du elkartasuna lankidetzaren hori, ekonomia zirkularraren eredia indartzeko. Kooperatibak Zero Hondakin programa du, eta haren bitartez, freskura maximorik ez duten produktu freskoak eta elikagaiak (edo, bestela, hutsegiteren bat duten eta saldu ezin diren ontziak) kendu egiten ditu bere apaletatik. Batzuetan, aipaturiko produktuek ez dute balio giza kontsumorako, eta bai animaliak mantentzeko. "EROSKI gure prozesuen bidez, janari hondakinak ez sorrarazten saiatzen gara, helburua delarik ezertxo ere alferrik galtzen ez dela bermatzea eta hala ingurumenean eta gizartean izan dezakeen eragina saihestea", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. 2020an bakarrik, EROSKI 4.600 tona janari alferrik galtzea eragotzi zuen; besteak

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



beste, bederatzi milioi otordu eman dituelako dohaintzan bazterketa arriskuan direnentzat.

"Laguntza handiko elkartasun ekimena da. Jasotzen ditugun frutak eta berdurak bikain egoten dira BBK Karpin Faunako harrera zentroko animaliek kontsumi ditzaten, eta haien mantenurako ekarpen garrantzitsua dira. Oso eskertuak gaude EROSKIri bere prestasunagatik, konpromisoagatik eta kolaborazioagatik", esan du Enkarterrietako Mankomunitateko presidentek, Martin Perez Garmendiak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa